

# ELA

## HEZKUNTZA

### Irakasle funtzionarioak

# ZUREKIN GOAZ

*Indar betez, buru-belarri*

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus     #ZurekinGoaz

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

2019ko martxoaren 26an garrantzia handiko hitzordu bat dugu hezkuntza publikoko langileok: hauteskunde sindikalak. Egun honetan, langileok, gure botuaren bidez, gure ordezkariak aukeratu eta datozen lau urtetarako indar korrelazioak erabakiko ditugu.

Azken urteetan krisiaren aitzakiarean murrizketa oso gogorak ezarri dizkigute hezkuntza publikoan. Krisi aurretik baino aberastasun gehiago sortzen dugun arren hezkuntzan inbertsio publikoa beherantz doa etengabe zorraren ordainketara bideratzen den dirua gorantz doan bitartean. Gure ikastetxeetatik dirua atera, banketxeei emateko. Hori da gobernuek, botere ekonimikoen interesei men eginez erabaki dutena.

Hezkuntza publikoa jo-puntun dago: plantilen murrizketa, ratioen igoera, lan-kargen handitzea, eros ahalmenaren galera, behin-behinekotasun tasa onartezinak, erretiroaren atzerapena eta zailtzea, LOMCE eta Heziberriren inposaketa, segregazioa...

Azken bi ikasturteetan egoera honi aurre egin asmoz greba eta mobilizazio historikoak eraman ditugu aurrera hezkuntza publikoan eta gobernua mugiaraztea lortu dugu, ZORIONAK!

Zoritxarrez, eta ELAren iritziaren kontra, gainerako sindikatuak hezkuntza publikoak dituen arazoei erantzuten ez dieten akordioak sinatu zituzten Jaurlaritzarekin pasa den ikasturtean. ELA izan zen grebak mantentzearen alde agertu zen sindikatu bakarra. Sindikatuon papera ezin da izan administrazioak aldebakarrez inposatzen dituen murrizketen zati txiki bat itzultzen digutelako eskerrak ematea, baizik eta bizi dugun eraso bortitzaren aurrean langileak antolatu eta borrokarako bide ematea.

### ZERGATIK ELA?

- Ikasturte hasierarekin batera argi ikusi dugu hezkuntza publikoak dituen arazoak bere horretan jarraitzen dutela eta esperientziak argi erakutsi digu Jaurlaritza beste norabide batean doazen erabakiak hartzera behartu nahi badugu langileon antolakuntza eta greba eta mobilizazio dinamika indartsu baten bidez izango dela. Zoritxarrez ELA da momentu honetan bide hori egiten ari den sindikatu bakarra.
- Hezkuntza berdintasuna, justizia soziala, integrazioa, jendarte kohesioa eta garapen pertsonal eta sozial integralerako oinarritzko tresna izango den eta hezkuntza publikoa ardatz izango duen hezkuntza sistema baten alde borrokatzen dugulako.
- Hezkuntza publikoko sektore desberdinetako prekaritate egoera, arazo eta aldarrikapenei bide emateko beharrakoa den mobilizazioa bultzatzen dugulako.
- Guzti hori aurrera eraman ahal izateko egitura eta antolakuntza oso sendo eta zabala dugulako. Ideologikoki eta ekonomikoki sindikatu independentea garelako. Klase sindikatu feminista garelako, eta gurea kontrabotereko sindikalismo aldarrikatzailea delako.

### HORREGATIK, ELA SINDIKATUA HEZKUNTZA PUBLIKOA ERAIKITZEKO INOIZ BAINO EZINBESTEKOAGOA DA!

**ZURE ESKU DAGO, MARTXOAREN  
26AN BOZKATU ELA!**



HAUTESKUNDE SINDIKALAK

## ELA sindikatua, Hezkuntza Publikoa eraikitzeke inoiz baino ezinbestekoagoa!

Hauteskunde hauek erabakiorrak izango dira irakasle funtzionarioen sektorerako zein eredu sindikal nahi dugun definitzeko: alde batetik Hezkuntza Sailaren interesetara moldatzen den eta mobilizazioa baztertzen duen negoziazio kolektibo eredu bat lehenesten duen eredu sindikala eta bestetik, kontrabotereko eredu sindikal bat, langileen lan-baldintzak hobetuko dituen benetako edukiz osatutako negoziazioa lortzeko mobilizazioa ezinbestekoa dela ulertzen duena.

Aurreko bi ikasturteetan aurrera eramandako greba eta mobilizazioetan ikusi genuen moduan, Hezkuntza Saila langileok antolatu eta borrokaturikoan sorturiko presioaren aurrean soilik esertzen da benetako edukiak negoziatzera.

Mobilizazio eta greba haiek oso arrakastatsuak izan ziren eta indar betean zeuden arren, gainerako sindikatuek, ELAren iritzia kontra, Eusko Jaurlaritzarekin lan-legepeko irakasle eta heziketa bereziko langileen aldarrikapen eta arazoei irtenbiderik ematen ez zien akordioa sinatzea erabaki zuten.

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, argi eta garbi geratu da irakaslearen arazo estrukturalak ez direla konpondu desmobilizazioa ekarri zuen akordio honen eskutik. ELAtik positibotzat baloratu genuen puntu bakarra ere, ordezkapenena, ez dela modu egokian betetzen ari.

Guzti honengatik, ELAn uste dugu langileen antolakuntza eta mobilizazioa inoiz baina garrantzitsuagoa dela. Eta horregatik, zuen babesa behar dugu martxoaren 26ko hauteskundeetatik ELAren indar korrelazio eta proposamenak indartuta atera daitezen eta negoziazio mahaietan Hezkuntza Sailari aurre egingo dion kontrabotereko sindikatu bat egon dadin.

### BEHIN BEHINEKOTASUNA %6RA MURRIZTU ETA LANPOSTUAK KONTOLIDATU

Egun, EAEko hezkuntza publikoan lanean diharduten 27.220 irakasleetatik 10.823 behin-behinekoak gara, hau da, %40a. Ikasturte honetan, berriz ere behin-behinekotasunak gora egin du, %38tik %40ra igoz eta 1.123 behin-behineko

gehiago ditugu aurten irakasleen kidegoan. Gainera, langile hauetariko asko aspalditik daude egoera prekario honetan.

Honen aurrean, Jaurlaritzak behin-behinekotasun eta prekaritatea bere horretan mantendu, areagotu eta betikotzen duten EPE eta egonkortasun planteamenduak jarri ditu abian. Sasi-egonkortasun planteamentu hau parte txar bat da. Sistema honek onartezina den eta gorantz doan behin-behinekotasuna kudeatzea du helburu, ikastetxeei egonkortasuna emanaz langileen lan-baldintzak oraindik gehiago prekarizatuz. Eusko Jaurlaritzaren neurria egindako trajea da: eskuak libre uzten dizkio interinoren lanpostuak suntsitzeko matrikulazioaren beherakada etortzen denean. Gainera, partxe txar bat den heinean gabezia eta arrisku asko ditu. Lanpostuen banaketa injustu batetara eramango gaitu proposamen honek, izan ere, antzinasun eta puntu asko dituztenak bakanterik gabe gera daitezke puntu gutxiago dituztenak bakante hoietan egonkortuta dauden bitartean. Bitarteko gehienak finkatuta egotea suposatuko lukeenez, bitarteko batek lanpostua "galtzen" badu (matrikulazio beherakadaren ondorioz lanpostu hori suntsitzen dutelako, lanpostu horren titularrak itzuli delako, edota EPE bidez edo lekualdatze lehiaketa bidez beste karrerako funtzionario batek bete duelako, etab.), zerrendetara itzuliko da eta lanpostu huts gehienetan bitartekoak finkatuta egongo direnez, zerrendara itzuli behar izan duenari, nahiz eta puntuazio ona izan, askoz lanpostu gutxiago geratuko

zaizkio hautatzeko, agian ordezkapenak egin beharko dituelarik nahiz eta puntuazio ona eduki zerrendetan. Ikastetxeetako ekipoak eta proiektuak langileen kontura egonkortu nahi dituzte.

Eta honi EPEa gainditzeagatik puntuak emateko erabakia gehitzen zaio. Jaurlaritzak urteetan ez du inolako EPE deialdirik egin eta egin dituen oso plaza gutxi atera ditu lehiaketara, etengabe behin-behinekotasuna areagotuz. Hezkuntza sistema larriki kaltetzen duten erabaki hauek sorturiko ondorioak konpontzeko gobernua milaka interino eta ordezeko "erabili" ditu urte askotan, behin-behineko kontratuekin, modu prekarioan.

Erabaki honek (eta hau norantza honetan hartu nahi dituzten neurrien lehen urratsa besterik ez da) milaka irakasleren lana baliorik gabe utz dezake eta ordezkoren zerrenda osoa hankaz gora jarri. ELArentzat onartezina da honelako proposamenak egitea, are gehiago alde aurretik lanpostuak kontsolidatzeko inolako planik adostu gabe, urte luzetan hezkuntzan modu prekarioan lan egitera behartu eta beraietaz probestu den milaka irakasleren lana arriskuan jarriz.

ELAren aburuz badago alternatiba benetako arazo larri den behin-behinekotasunari irtenbide egoki bat emateko. Ikastetxeen eta hezkuntza sistemaren behar estrukturalak lanpostu estrukturalekin bete behar dira eta behin-behinekotasunarekin amaitu, kontsolidazio bermeak izango dituen behar besteko EPE deialdi bidez.

Beraz, lehenengo behar estrukturalak ondo definitu behar ditugu, beharrezko lanpostu guztiak sortu, behin-behinekotasuna %6ra jaitsiko duten kontsolidazio EPEak diseinatuz eta berriro ere behin-behinekotasun maila ikaragarri hauek errepikatzea ekiditeko beharrezko neurriak hartu behar dira.

### RATIOEN MUTURREKO POLITIKAREKIN AMAITU, LAN KARGAK GUTXITU ETA BEHARREZKO LANPOSTUAK SORTU

Hezkuntza publikoan, matrikulazioaren igoeraren ondorioz sortu ez diren gela kopuruengatik behar baino 2.388 lanpostu gutxiago ditugu eta gelako ikasle kopurua %9,1ean hazi da, honek hezkuntza prozesuaren garapenean sortzen dituen arazoekin. Jaurlaritzak ratioen muturreko politika bat aplikatzea erabakita dauka posible den ikastetxe guztietan.

Gainera, ikasturte honetan Eusko Jaurlaritzak, datozen urteetako matrikulazioaren beherakada aurreikusiz, estrategia berri bat jarri du abian murrizketa eta lanpostu suntsiketa berriak egiteko joko zelaia prestatuz, gero eta lanpostu gehiago Lanpostu Zerrenda ofizialetik ateraz eta hauek babesgabetasun egoera batean eta berme legalik gabe utziz.

2018ko maiatzean gainerako sindikatuek sinaturiko akordioak ez du Eusko Jaurlaritzaren muturreko ratioen politikan eraginik izan, ez du mugatu eta ez dio arazoaren muinari heldu, lanpostuak Lanpostu Zerrendatik ateratzeko estrategian eta hauek esleitzerako gardentasun faltan lagundu du eta sortu diren lanpostu urriak prekarioak dira.

Honen aurrean, ELA sindikatuak lanean eta borrokan jarraituko du ratioak jaitsi eta beharrezko 973 ikastalde eta bermedun 2.388 lanpostuak sortzeko, lanpostu hauen babesgabetasuna ekiditeko lanpostu guztiak Lanpostu Zerrenda ofizialean sartzeko eta lanpostuen esleipenerako arauetan gardentasuna eta zehaztasun maila handiagoa lortzeko.

### ETA...

Halaber, ELA sindikatutik aurreko bi ikasturteetan grebara eraman gintuzten eta sinatutako akordioak erantzunik eman ez dien murrizketei buelta emateko borrokan jarraituko dugu: %15eko eros ahalmenaren galeraren berreskurapena, erretiro aurreratua eta pizgarriak, etab.

## Martxoaren 26an, bozkatu ELA!





# ZUREKIN GOAZ

## Irakasle funtzionarioak

### HAUTAGAITZA

#### BIZKAIA

- 1.Maitane Urrutxurtu Ereño.
- 2.Maitane Martell Goiri.
- 3.Estibaliz Santamaria Garcia.
- 4.Koldobike Arriola Torrealdea.
- 5.Montserrat López González.
- 6.Aitor Arakistain Urrusolo.
- 7.Txantxi Javier Sanz Iraeta.
- 8.Gema Ibarluzea Agirre.
- 9.Miren Garbiñe De Diego Cortazar.
- 10.Leire Vidal Larradagoitia.
- 11.Amagoia Lauzirika Ibarluzea.
- 12.Aitor Martín Mozota.
- 13.Estefanía Medja Fernández.
- 14.Adina Carril Azcarate.
- 15.Miriam Urigüen Arrizabalzaga.
16. Zorione Fundazuri Urquidi.
- 17.Aintzane Etxeberria Lasarte.
- 18.Izaskun Urculo Irusta.
- 19.Verónica Martínez Bernet.
- 20.Fco Javier Llantada Zabala (beste 64 hautagai)

#### GIPUZKOA

- 1.Bakarne Odriozola Amigorena.
- 2.Itzalai Alberdi Mugica.
- 3.Idoia Gascon Salaberria.
- 4.Aitor Garcia Uralde.
- 5.Maider Reboredo Sanchez.
- 6.Marian Gonzalez Arenas.
7. Fede Badiola Santiso.
- 8.Miren Moyano Arin.
- 9.Mikel Elizondo Yarza.
- 10.Juan Antonio Vega Fernandez.
11. Bego Anacabe Solabarrieta.
- 12.Silvia Uzal Escudero.
- 13.Nerea Illarramendi Zubimendi.
- 14.Garikoitz Oria Telletxea.
- 15.Joseba Solabarrieta Badiola.
- 16.Nagore Olaziregi Huarte.
- 17.Olatz Zubizarreta Palma.
- 18.Urko Rivas Melero.
- 19.Patricia Sanchez Mateos.
- 20.Maitane Garayalde Horrillo (beste 52 hautagai)

#### ARABA

- 1.Bego Estavillo Garcia de Jalon.
- 2.Mikel Querejeta del Olmo.
- 3.Eneka Aranzabal Conde.
- 4.Joana Duran Trenado.
- 5.Yolanda Saez de Ibarra Fernandez.
- 6.Ainoa Ortiz de Zarate Agüero.
- 7.Mikel Mugica Lopez de Uralde.
- 8.Xabi Rey Belloso.
- 9.Eneko Arrona Castro.
- 10.Ane Lopez Gasco.
- 11.Cristina Roman Castander.
- 12.M<sup>a</sup> Gloria Fernandez Laseca.
- 13.Agurne Ajuria Suso.
- 14.Imelda Blazquez Carretero.
- 15.Unai Ochoa de Aspuru Uribe.
- 16.Ander Martinez Mingo.
- 17.M<sup>a</sup> Eugenia Ortiz de Urbina Ochoa de Eribe.
- 18.M<sup>a</sup> Estibaliz Fernandez Royuela.
- 19.Ander Ollora Garcia de Albeniz.
- 20.Eduardo Oregi Uriarte (beste 39 hautagai)

# ELA

EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus



# ZUREKIN GOAZ

*Indar betez, buru-belarri*

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus



#ZurekinGoaz